

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

JOKANOKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Jendaurrean jartzea Jokanoko etxeak edateko urez hornitzeko tasa ordaindu behar dutenen errolda, eta kobratzeko jartzea 2019ko maiatzetik 2020ko maiatzera bitarteko ekitaldiko ordainagiriak, borondatezko epean

Egin delarik Jokanoko etxeak edateko urez hornitzeko tasaren errolda, 2019ko maiatzetik 2020ko maiatzera bitartekoa, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertze eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesdunek Jokanoko (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 9. artikularen 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko erregidore-lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazitako epean barruan.

Borondatezko epea: hiru hilabete, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekarguarekin, Arabako Zergen Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jokano, 2020ko ekainaren 5a

Lehendakaria

MARÍA TERESA ORTIZ DE ZARATE